

2026ko martxoaren 30a.

Palestinako Lurraren Eguna



Martxoaren 30a Lurraren Eguna da Palestinan.

Israelek indarrez lapurtutako lur palestinarrak benetako jabeentzat berreskuratzeko borroka ospatzen da.

1975ean okupazio-armadak 6 palestinar hil zituen Israelen greba orokor batean. Aurten 50. urteurrena ospatzen dugu. Sionismoak koloniak eta base militarrik eraikitzen jarraitzeko egindako lur-lapurreta masibo eta sistematikoaren aurkako protesta zen.

Lurra da errotzeko eta lurralde eta komunitate bateko kide izateko elementurik oinarritzkoena.

Lurralde historiko horretan, olibondoa ez da zuhaitz bat bakarrik, bakearen, bizikidetzaren eta bizitzaren sinbologia baizik. Palestinan daude munduko olibondo zaharrenetako batzuk, 4.000 urte baino gehiagokoak. Olibondoa biziki balioesten da ura urria den lurretan sustrai sakonak garatzeko eta aurrera egiteko duen gaitasunagatik. Palestinar herriak okupazioaren eta kolonizazio sionistaren aurrean duela 78 urte baino gehiagotik duen errotzea eta erresistentzia adierazten du.

Oliba biltzeko garaian, familia palestinarrak uztarako batzen dira. Alaitasun, ospakizun eta oparotasun garaia da. Hala ere, Israelek poztasun garai hori larderia, laboreen suntsiketa eta nekazari palestinarren aurkako eraso egun bihurtu du. Israelek milioi bat olibondo baino gehiago suntsitu ditu 1948tik. Gaur egun, armada ez ezik, kolono israeldarrak dira milaka urteko herentzia palestinatar hori lapurtzen eta suntsitzen dutenak. Sionismoak palestinarren aurkako gerra-arma bihurtu du bakearen zuhaitza. Hala eta guztiz ere, olibondoa indartsua da, iraunkorra, eta ehunka edo milaka urte bizitzen da, baita baldintza zailenetan ere, Palestinako herria bezala.

Hemen, Nafarroako gure lurraldean, olibondoa erromatarren garaitik dago presente. Ehun urteko olibondoak aurki ditzakegu. Gure historian zehar bere laborantzak izan duen eta duen garrantziaz hitz egiten digute. Mendeetan zehar, olibondoa eta mahatsondoa Nafarroako Erriberako eta erdialdeko nekazaritzaren zati handi bat izan dira.

Bigarren urtez, Yalatik, herri palestinarrekin borrokak eta erresistentziak batzera animatu nahi zaituztegu. Horregatik, Palestinarekiko zuen elkartasun eguna iaz egin genuen bezala modu koordinatuan antolatzen animatzen zaituztegu. Helburua da gure herri eta hiri guztietan PALESTINAREN ALDEKO OLIBONDO bat egotea, gure herriak hainbeste hilabetez jarraian erakutsitako elkartasun izugarria gauzatzeko.

Hainbat material behar dituzuenekin parteka dezakegu: poema palestinarrek, musikak eta dokumentalak, solasaldiarekin batera, zuen herrietara joateko horiei buruz hitz egitera. Ekintzarako beste ideia batzuk: olibondo bat landatu, eta iaz bat landatu bazenuten, ekitaldi bat egin haien aurrean: aureskua, irakurketak, musikak.... Ekitaldiaren argazkiak ateratzea da kontua, gero guri bidaltzeko. Argazkiekin collage bat egingo dugu, eta Palestinara bidaliko dugu, han gure laguntza eta elkartasuna sentitzen jarrai dezaten. Aldi berean, sionismoaren, trumpismoaren eta Israelekin harremanak hausten ez dituzten guztien aurkako gaitzespen irmoa agertuko dugu.

Ekintza kolektibo deszentralizatu honek Nafarroan Palestinarentzat aldarrikatzen dugun bake eta justizia nahia sinbolizatzea nahi dugu. Bake hori herriek munduko gobernuetara presio nahikoa egiten diegunean bakarrik izango da posible. Israeli zigorrak ezartzeko eta estatu genozidarekiko harremanak eteteko.

Ziur gaude egunen batean familia palestinarrek berriz ere olibadiak bilduko dituztela. Eta bizitza, askatasuna eta poza ospatzera, okupaziorik, kolonizaziorik eta apartheidik gabe. Eta guk, orduan, kaleetan jarraituko dugu ospatzeko.

Gora Palestinako herriaren borroka!

Israelekin harremanak hautsi, Orain!

30 de marzo 2026. Día de la tierra Palestina



El 30 marzo es el día de la Tierra en Palestina.

Se conmemora la lucha por recuperar las tierras palestinas robadas por Israel, mediante el uso de la fuerza, para sus verdaderos dueños.

Este año conmemoramos el 50 aniversario del asesinato de 6 palestinos en Israel por el ejército de ocupación durante la huelga general por la que se protestaba contra el robo masivo y sistemático de tierras por parte del sionismo para seguir construyendo colonias y bases militares.

La tierra es el elemento más básico sobre el que se sustenta el arraigo y la pertenencia, no solo a un territorio sino también a una comunidad.

En esa tierra histórica, el olivo no solo es un árbol, es un símbolo de paz, de convivencia y de vida. En Palestina se encuentran algunos de los olivos más antiguos del mundo, con más de 4.000 años de antigüedad. El olivo es profundamente valorado por su capacidad para prosperar y echar raíces profundas en tierras donde el agua escasea, expresando metafóricamente el arraigo y la resistencia del pueblo palestino ante la adversidad que representa la ocupación y la colonización sionista desde hace más de 78 años.

Cuando llega la temporada de recogida de la aceituna, las familias palestinas se unen para cosechar. Es un tiempo de alegría, celebración y abundancia. Sin embargo, Israel ha convertido esa temporada gozosa en días de intimidación, destrucción de cultivos y ataques hacia las y los agricultores palestinos. Se estima que Israel ha arrasado desde 1948 más de un millón de olivos. En la actualidad, no solo el ejército sino, fundamentalmente, los colonos israelíes son quienes roban y destruyen esta herencia palestina milenaria. El sionismo ha convertido el árbol de la paz en un arma de guerra contra la población palestina. Pese a todo esto, el olivo es fuerte, persistente y vive cientos o miles de años, incluso en las condiciones más difíciles, como el pueblo palestino.

Aquí en nuestra tierra, en Navarra/Nafarroa, la presencia del olivo se remonta a la época de los romanos en la península. Podemos encontrar olivos centenarios que nos transmiten la importancia que ha tenido y tiene su cultivo a lo largo de nuestra historia. Durante siglos, el olivo junto con la vid ha constituido buena parte de la agricultura de la Ribera de Navarra y de su zona media.

Por segundo año consecutivo, desde Yala, queremos animaros a unir luchas y resistencias con el pueblo palestino, por eso os animamos a que organicéis vuestro día de solidaridad con Palestina de forma coordinada tal y como hicimos el año pasado. El objetivo es que en todos nuestros pueblos y ciudades haya un OLIVO POR PALESTINA que materialice la enorme solidaridad mostrada por nuestro pueblo durante tantos meses consecutivos.

Podemos compartir con quienes necesitéis diversos materiales: poemas palestinos, músicas y también documentales acompañados de coloquio, para ir a comentarlos a vuestras localidades. Otras ideas de acción son: plantar un olivo, y a quienes ya plantasteis el año pasado, hacer un acto frente a los mismos: auresku, lecturas, músicas.... La idea es sacar fotos del evento para que después, nos las enviéis. Con las fotos elaboraremos un collage que difundiremos y enviaremos a Palestina para que allí sigan sintiendo nuestro acompañamiento y solidaridad, a la vez que mostramos el mayor de los rechazos y desprecio hacia los genocidas: el sionismo, el trumpismo y sus cómplices: todos aquellos que no rompen relaciones con Israel.

Esta acción colectiva descentralizada queremos que represente el anhelo de paz y justicia que desde Navarra reivindicamos para Palestina. Y esa paz solo será posible cuando los pueblos hagamos la suficiente presión sobre los gobiernos del mundo para que impongan sanciones a Israel y se rompan todo tipo de relaciones con el estado genocida.

Estamos seguras de que un día, las familias palestinas volverán a cosechar sus olivares y a celebrar la vida, la libertad y la alegría sin ocupación, sin colonización y sin apartheid y nosotras, entonces, seguiremos en las calles para celebrarlo.

¡Viva la lucha del pueblo palestino! Ruptura de relaciones con Israel, Ya!

